

MacOS v.1.1.4 txartel birtuala





EDUKIA

1.	Sarrera.....	3
2.	Sistemaren betekizunak.....	4
2.1.	Sistema eragileak.....	4
2.2.	Nabigatzaileak.....	4
2.3.	Hirugarrenekiko integrazioa	4
3.	Nola instalatu Izenperen Txartel Birtuala Mac-en?	5
3.1.	Deskarga	5
3.2.	Instalazioa	5
3.3.	Aplikazioa desinstalatzea.....	5
4.	Erabilera-gida azkarra	6
4.1.	Aplikazioa irekitzea	6
4.2.	Izenpe kontu profesionala gehitu	6
4.3.	Izenpe kontu pertsonala gehitu.....	7
4.4.	Nola egiaztatu daiteke ondo instalatu dela?.....	8
4.5.	Nola eman dezaket arazo baten berri?	10
5.	Aplikazioaren egoera	12
5.1.	Ziurtagiriak eskuratzea	12
5.2.	Aplikaziotik irtetea	12
5.3.	Saioaren kudeaketa	12
5.4.	Aplikazioaren beste aukera batzuk.....	14
6.	A. eranskina. AutoFirma, Firefox eta Idazki Desktop konfiguratzea	16
6.1.	Nola erregistra dezaket Firefoxen txartel birtuala?	16
6.2.	Nola konfiguratu AutoFirma?	18
6.3.	Nola konfiguratu Idazki Desktop?.....	19

1. Sarrera

Txartel Birtuala aplikazioari esker, lizenperen hodeian ziurtagiri profesionalak eskura daitezke, konfigurazioaren arabera. Horrela, zure ordenagailuan exekutatzen diren aplikazioek ziurtagiri horiek eta sinadura-gakoak erabil ditzakete, sistema eragileak zuzenean instalatu izan balitu bezala.

2. Sistemaren betekizunak

2.1. Sistema eragileak

macOS Big Sur 11.0

2.2. Nabigatzaileak

Chrome v.116.0 eta berriagoak;

Firefox v.117 eta berriagoak;

Safari ezin da erabili.

2.3. Hirugarrenetako integrazioa

Adobe Acrobat

Autofirma (ikus A


eranskina)

3. Nola instalatu Izenperen Txartel Birtuala Mac-en?

3.1. Deskarga

Izenperen Txartel Birtuala aplikazioa esteka honetan deskarga daiteke:

<https://www.izenpe.eus/soporte-y-documentacion-tecnica/webize01-cndoctecnica/es/>



tarjetaVirtualIzenpe.dmg fitxategia deskargatuko da hautatutako lekuan.

3.2. Instalazioa

Egin klik bikoitza deskargatutako fitxategiaren gainean, instalazio-leihoak erakusteko, arrastatu Izenperen Txartel Birtuala aplikazioa karpetara eta itxi leihoa.



Behin hori eginda, Izenperen Txartel Birtuala aplikazioa eskuragarri egongo da erabiltzailearen aplikazioen karpetan.

OHARRA: Aurretik bertsio bat instalatuta badago, hura desinstalatzeko komeni da.

3.3. Aplikazioa desinstalatzeko

Izenperen Txartel Birtuala desinstalatzeko, jo aplikazioen karpetara eta bota aplikazioa paperontzira.


4. Erabilera-gida azkarra

4.1. Aplikazioa irekitzea

Aplikazioa abiarazteko, egin klik Izenperen Txartel Birtualaren zuzeneko sarbidean, aplikazioen direktoriotik edo SpotLight bilaketaren bidez.




Konturik lotuta ez badago, ongietorri-pantaila agertuko da.




4.2. Izenpe kontu profesionala gehitu

Kontu bat gehitzeko, egin klik «Lotu» aukeraren gainean, hodeiko «Profesionala» atalean.



Saio-hasierako formulario bat agertuko da, eta bertan zerbitzarian ezarritako baimen aukerak erakutsiko dira.

Adibidez, honako hau:




TARJETA VIRTUAL PROFESIONAL/ TXARTELA BIRTUAL
PROFESIONALEAK ZURE AUTENTIFIKAZIOA ESKATZEN
DU

NAN/AIZ


PASAHITZA



[Pasahitza ahaztu al zaizu?](#)


SARTU




Behin kontua sortuta, ziurtagiriaren informazioa eta saioaren egoera bistaratuko dira.






 **Izenpe Txartel Birtuala**  Ezarpenak

 NAN/AIZ, pasahitza eta SMS kodea

[+ Estekatu](#)


 Hodeiko profesionala Konektatuta
[Berriz konektatu, orain](#)



 


 Desaktibatu dena eta irten

4.3. Izenpe kontu pertsonala gehitu


Kontu bat gehitzeko, egin klik «Lotu» aukeraren gainean, NAN/AIZ, pasahitza eta SMS kodea atalean.




 **Tarjeta Virtual Izenpe**  Ajustes

 DNI / NIE, contraseña y código SMS

[+ Vincular](#)

 Profesional en la nube

[+ Vincular](#)

 Desactivar todo y salir

Saio-hasierako formulario bat agertuko da, eta bertan zerbitzarian ezarritako baimen aukerak erakutsiko dira. Adibidez, honako hau:



BAKQ TXARTELA BIRTUALA / TARJETA VIRTUAL
BAKQ (E)K ZURE AUTENTIFIKAZIOA ESKATZEN
DU

NAN / AIZ

PASAHITZA


[Pasahitza ahaztu al zaizu?](#)

JARRAITU


[> Ez al duzu BakQ? Eska ezazu!](#)
[> Laguntza behar duzu](#)





Behin kontua sortuta, ziurtagiriaren informazioa eta saioaren egoera bistaratuko dira.





Izenpe Txartel Birtuala Ezarpenak

 NAN/AIZ, pasahitza eta SMS kodea Konektatuta
Berriz konektatu, orain



 Hodelko profesionala



 Desaktibatu dena eta irten


4.4. Nola egiaztatu daiteke ondo instalatu dela?

Aplikazioak eta ziurtagiriak behar bezala funtzionatzen dutela egiazta dezakezu, web-helbide honetan sartuta: <https://servicios.izenpe.com/home/>

Sartu ziurtagiri digitalen tresnen atalera.



Hautatu «Identifikazioa probatu» aukera.



Leiho bat aterako da, proba egiteko ziurtagiria hautatzeko. Aukeratu nahi duzun ziurtagiria eta sakatu «Onartu» botoia.



Baliozkotzea behar bezala burutu bada, ERANTZUN ZUZENA bezalako mezu bat agertuko zaizu ziurtagiriaren informazioarekin batera.

IDENTIFIKAZIOA PROBATU

ZURE ZIURTAGIRIA KUDEATU

ERANTZUN ZUZENA

Giltzak erantzun zuzena bueltatu du

ERABILTZAILEA DATUAK		
Izena	Abizena	Jaiotza-data
		--
ZIURTAGIRIA DATUAK		
NAN/AIZ	Baliiduna noiztik	Baliiduna noiz arte
	2024/01/19	2028/01/19
IGORLEA DATUAK		
Igorlea		

4.5. Nola eman dezaket arazo baten berri?

Txartel birtualarekin arazoak badituzu, sartu aplikazioaren «Ezarpenak» atalean eta sakatu «Arazo baten berri eman» aukeraren gainean.

Izenpe Txartel Birtual v.1.1.0

< Ezarpenak

Hasierako pantailan erakutsi beharreko profilaik

NAN/AIZ, pasahitza eta SMS kodea

Hodeiko profesionala

Lotutako ziurtagiriak

NAN/AIZ, pasahitza eta SMS kodea

Hodeiko profesionala

Hizkuntza Euskara

Arazo baten berri eman

Izenpe Txartel Birtual

< Arazo baten berri eman

Aplikazioa erabiliz arazoren bat detektatu baduzu, mesedez, bete itzazu gorabehera deskribatzeko eremu hauek. Ahalik eta azkarren erantzuten saiatuko gara.

Izena

Posta elektronikoa

Aplikazioa

Deskribapena

Ezetzatu Bidak

Bete formularioa eta sakatu «Bidali» aukeraren gainean, sail teknikoak arazoa lehenbailehen ikertu eta konpon dezan


5. Aplikazioaren egoera

5.1. Ziurtagiriak eskuratzea

Zerbitzariko sinadura-identitateak erabiltzailearen ekipoan ziurtagiri gisa ikusteko eta beste aplikazio batzuetatik erabili ahal izateko, Txartel Birtuala aplikazioak abiarazita egon behar du. Gainera, erabiltzaileak saioa hasita izan behar du aplikazioan.

5.2. Aplikaziotik irtetea

Txartel Birtuala aplikazioa ixteko, egin klik «Desaktibatu guztia eta irten» aukeraren gainean.




Aplikazioak erabiltzailearen saioa hasita bazuen, automatikoki itxiko da, eta zerbitzariko sinadura-identitateen ziurtagiriak ekipoarentzat ikusgai izateari utziko diote.

5.3. Saioaren kudeaketa


5.3.1. Saioa freskatu

Denbora tarte bat igaro ondoren, saioa berez amaitu egingo da. Berrir konektatzeko sakatu «Berrir konektatu» aukeraren gainean.




5.3.2. Ziurtagiria desaktibatu

Ziurtagiri bat aldi baterako desaktibatuzeko, egin klik ziurtagiriaren egoera-botoian



eta baieztatu desaktibatu nahi duzun.



Behin desaktibatuta, ziurtagiria ez da eskuragarri egongo, eta haren ikonoa gris agertuko da.


5.3.3. Ziurtagiria aktibatu

Ziurtagiria berriro aktibatuzeko, sakatu egoera-botoia. Saio-hasierako formulario bat agertuko da, eta bertan zerbitzarian ezarritako baimen aukerak erakutsiko dira.

5.3.4. Kontua kendu

Lotutako konturen bat kendu nahi izanez gero, sartu aplikazioaren ezarpenetan eta sakatu «Lotutako


kontuak» aukeraren gainean. Gero, hautatu kendu nahi duzun kontua eta eman «Kendu» botoiari.



5.4. Aplikazioaren beste aukera batzuk

5.4.1. Aplikazioaren hizkuntza aldatu

1. Joan zaitetz «Ezarpenak» atalera.



2. Aukeratu nahi duzun hizkuntza.



5.4.2. Txartel birtualaren bertsioa ikusi

1. Joan zaitez «Ezarpenak» atalera.
2. Bertsioa goian ageri da, eskuinaldean

6. A. eranskina. AutoFirma, Firefox eta Idazki Desktop konfiguratzea

AutoFirma eta Firefox ez dira bateragarriak ziurtagiri digitaletara sartzeko MacOS mekanismo estandarrekin. Izenperen hodeiko ziurtagiriak AutoFirma eta Firefoxek erabili ahal izateko, beharrezkoa da hirugarrenek garatutako software egokitzaille bat erabiltzea, MacOS sistema estandarren eta tresna horiek eusten duten interfazearen arteko zubi lana egiteko.

Eranskin honetan zubi-software hori nola instalatu azaltzen da, bai eta Firefox eta AutoFirma nola konfiguratuta ere, Txartel Birtualaren bidez eskura daitezkeen ziurtagiri digitalak erabili ahal izateko.

6.1. Nola erregistra dezaket Firefoxen txartel birtuala?

6.1.1. Software egokitzaila deskargatu

Deskargatu softwarea honako esteka honetan:

<https://www.izenpe.eus/soporte-y-documentacion-tecnica/webize01-cndoctecnica/es/>



OHARRA: software hau Izenpetik kanpoko erakunde batek garatu du.


keychain-pkcs11-1.1.0.pkg fitxategia deskargatuko da hautatutako lekuan.

6.1.2. Software egokitzaila deskargatzea

Deskargatu ondoren, ireki instalatzailea eta jarraitu jarraibideei prozesua amaitu arte.


keychain-pkcs11.dylib hemen instalatuko da:

Bidea: /usr/local/lib/keychain-pkcs11.dylib




6.1.3. Firefoxen software egokitzaila gehitzea

1. Ireki Firefox nabigatzailea eta sakatu lehentasunetan konfigurazio-koadrora sartzeko.
2. Konfigurazio-menuan, egin klik «Pribatutasuna eta Segurtasuna» aukeraren gainean.
3. Segurtasuna > Ziurtagiriak aukeran, egin klik Segurtasun-gailuak aukeraren gainean, gailu kriptografikoen administratzailean sartzeko.



4. Gailuen administratzailean, egin klik Gehitu botoian, gailu berri bat gehitzeko.



5. Osatu kontroladorea kargatzeko behar diren datuak.

Moduluaren izena: Keychain PKCS11 Bridge

Moduluaren fitxategiaren izena: /usr/local/lib/keychain-pkcs11.dylib



- Behin onartuta, gailuen administratzaileak kargatutako modulu berriaren informazioa erakutsi beharko luke.

Detalles	Valor
Módulo	Keychain PKCS11 Bridge
Ruta	/usr/local/lib/keychain-pkcs11.dylib

6.2. Nola konfiguratu AutoFirma?

6.2.1. Deskargatu AutoFirma aplikazioa

Deskargatu hemen MacOSerako eskuragarri dagoen AutoFirmaren azken bertsioa:

<https://firmaelectronica.gob.es/Home/Descargas.html>


6.2.2. AutoFirma instalatzea

Deskarga amaitu ondoren, deskonprimatu fitxategia (behar izanez gero), eta hasi instalatzen. Baliteke lehen aldiari segurtasun-ohar bat ateratzea. Kasu horretan, joan zaitetz sistemaren doikuntzetara, sakatu Pribatutasuna eta segurtasuna atalaren gainean eta eman baimena. Sakatu irekitzeko aukeraren gainean eta bukatu instalazioa.



6.2.3. Ziurtagirien biltegia konfiguratzeko

AutoFirma aplikazioa ireki ondoren, aukeratu sinatu beharreko fitxategia. Besterik adierazi ezean, Mac-en biltegiako segurtasun-elkarrizketa aterako zaizu. Mozilla Firefoxen gakoaren biltegitik aldatu beharko duzu.



6.3. Nola konfiguratu Idazki Desktop?

6.3.1. Deskargatu Idazki aplikazioa

Deskargatu hemen MacOSerako eskuragarri dagoen Idazkiren azken bertsioa:

<https://www.izenpe.eus/idazki-herramientas-de-firma/webize01-cnsoluciones>

6.3.2. Software egokitzaila deskargatu

Deskargatu softwarea honako esteka honetan:

<https://www.izenpe.eus/soporte-y-documentacion-tecnica/webize01-cndoctecnica/es/>



OHARRA: software hau Izenpetik kanpoko erakunde batek garatu du.

keychain-pkcs11-1.1.0.pkg fitxategia deskargatuko da hautatutako lekuan.

6.3.3. Software egokitzaila deskargatzea

Deskargatu ondoren, ireki instalatzailea eta jarraitu jarraibideei prozesua amaitu arte.

keychain-pkcs11.dylib hemen instalatuko da:


Bidea: /usr/local/lib/keychain-pkcs11.dylib

6.3.4. Ziurtagirien biltegia konfiguratzeko

Idazkiren azken bertsioetan ziurtagirien biltegia lehenetsita dago.

Aldez aurreko bertsioen bat baduzu edo sinatzean arazorik baduzu, biltegia konfiguratuta dagoen egiazta dezakezu, Idazki Protocol aplikazioan pcks11.properties fitxategia ikuskatuz.

Mac-en, aplikazio baten edukira sartzeko, eskuineko botoia sakatu behar da, eta "Erakutsi paketearen edukia" aukeraren gainean sakatu.



Fitxategia hemen aurki daiteke: Idazki Protocolo/Contents/Java/pcks11.properties

Aplicaciones > Idazki Protocolo > Contents > Java > pcks11.properties

Ziurtatu honako lerroa idatzita duela, eta bestela, gehitu eskuz sinatu ahal izateko.

`/usr/local/lib/keychain-pkcs11.dylib`